

MUko ikasgelan frogatu dute biktimen bizipenak gizarteratzea helburu duen Glencree egitasmoaren dinamika parte hartzailea

2013/10/28

Joan den ostegunean, hilak 24, Glencree egitasmoaren dinamika frogatu zuten Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, hain zuzen ere, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 2. mailako ikasgelan.

Glencree egitasmoaren helburua da gizarteratzea, Irlandan, izen bereko herrian, biolentzia politikoaren biktimek izandako elkarrizketen emaitzak. Bilera haietan elkartu ziren, modu diskretu batean, **jatorri eta ideologia desberdineko 27 biktimak gora**, haien artean, esate baterako, Amaia Guridi, Patxi Elola, Edurne Brouard, Lurdes Zabala eta Fernando Garrido. Orain, nahi dena da bilera haietan landutakoa erabili, hausnarketa bultzatzeko eta biktimen gaia gizarteratzeko herritar helduen artean. Carme Trinidad Bartzelonako Unibertsitate Autònoma-ko (UAB) irakaslea eta egitasmoaren koordinatzaileak dion moduan, "saio pilotu honen xede da testatzea dinamika zehatz bat, balioko duena bultzatzeko elkarrizketa jatorri politikoa duen biolentzia testuinguruetan".

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko graduako Deontologia materialean frogatu dute dinamika. Asmoa da, laster hori berori erabiltzea **abiapuntu bezala, unibertsitateetan eta herriz-herri egingo diren bileretan**. Esan beharra dago, MUn egin dela egitasmoaren lehendabiziko probasaioa, baina, bultzatzaileen hitzetan, aurrerago egingo dituzte antzeko saioak ere EHUn eta Deustuko Unibertsitatean.

Glencree egitasmoaren dinamika parte hartzailea bi zati nagusitan banatzen da. Hasteko, Glencree-n izandako bileratan jasotako ideia nagusiak partekatzen dira hartzaileen artean, eta, horrekin batera, ikusten dira **Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea** dokumentalaren zati batzuk. Geroago, parte hartzaileak talde txikitan banatuta, gaiaren gainean eztabaidatzen dute eta biolentziaren, biktimen eta bakearen gaineko iritziak partekatzeko aukera dute.



Glencree egitasmoaren dinamika MUn



Glencree egitasmoaren dinamizatzaile taldea. Ezkerretik hasita,

bigarrena, Carme Trinidad koordinatzailea.

Aretxabaletako campusean egindako Glencree dinamikaren argazkiak.

"Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea"
dokumentala: